

# Landare Artean


Gidoia: Amaia Arregi, Rubén Molina eta Itziar Otegui.  
Marrazkiak: Rubén Molina.

OIHANAREN BIHOTZEAN,  
ZIENTZIALARI BATEK URTEAK  
DARAMATZA LANDAREEN FOTOSINTESI-  
PROZESUA IKERTZEN.

PROZESU BERA ERA ARTIFIZIALEAN EGIN  
DEZAKEEN NANOHIRIDO BAT  
SORTU NAHI DU.




FOTOSINTESIAN ZEHAR LANDAREEK  
EGUZKIAREN ENERGIA HARTU ETA  
ENERGIA KIMIKO BIHURTZEN  
DUTE GLUKOSA SORTUZ.




FOTOSINTESIA ZELULEN BARNEAN  
GERTATZEN DA, KLOROPLASTO  
IZENKO ORGANULUAN.

LEHENENGO FASEAN, KLOROFILA  
IZENKO MOLEKULA FOTOSENTIKORRAK ARGIA  
HARRAPATZEN DU ETA SUSTRAIK XURGATUTAKO  
UR-MOLEKULAK APURTZEKO ERABILTZEN  
DU. HALA, ARNASTEN DUGUN OXIGENOA  
KANPORATZEN DA ETA HIDROGENOA  
BERRIZ GORDE EGITEN DA.




BIGARREN FASEAN, HIDROGENO  
HORI LANDAREAK INGURUTIK  
HARTZEN DUEN KARBONO  
DIOXIDOAREKIN KONBINATZEN  
DA GLUKOSA SINTETIZATUZ.  
LANDAREEN FOTOSINTESIARI  
ESKER OXIGENOA ETA  
JANA DITUGU.









PISTOLAK NANOPARTIKULAK JAURTITZEN DITU ETA HAU EK LANDAREAREN AZALEAN INFILTRATZEN DIRA. LANDARE-EHUNAK MALGUAK DIRA, BAINA NANOPARTIKULAK SARTZEAN GOGORTU EGITEN DIRA, MUGIKORTASUNA ERABAT GALDUZ.





NANOHIRIDOA LANDARE  
GISA JOKATZEKO GAI IZANGO  
AL DA?

NANOHIRIDOK BI OSAGAI DITU:  
- ESTALDURA BIOBATERAGARRIA  
DUTEN SILIZIO-NANOHARIA  
- BAKTERIO-KULTURA BAT.



HAU DA  
**FOTOSINTESI ARTIFIZIALA:**

EGUZKI-ENERGIA ENERGIA  
KIMIKO BIHURTZEA  
NANOGAILU  
BATI ESKER.

